

Pierre Hondagneu
Santa Grazi, Zuberoa (1870)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 43 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Ostalaria eta errementaria. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.206 eta 2.207

Zintak

SAN-003

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-08
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Lanik gabe aberastu nahi zuen gizona

- **Erref:** SAN-003/001
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Lanik egin gabe aberastu nahi zuen gizonezko baten istorioa. Mugaz bestaldera, Espainia aldera joan zen zorte bila.</p>

Transkripzioa

Behin bazüzün franzes auher bat nun atsülütoki desiratzen baitzian lanik egin gabe aberastia, jiten ziozü pentsamentiala behar ziala juan Españalet han jentia axtoxiago beitzen Franzian beno. Agian lanik egin gabe aberasturen zela. Arren phartitzen düzü Españari bürüz bi soseki eta nula nazione hortan üsü idor beita ekhia zinez bero, jarten düzü bide bazter batetan itzalian zühain baten pian. Bethi pentsamentütan ari nula behar zian jokhatü lanik egin gabe aberasteko. Delako bi sosekua arriskatzen dizü paper gorri marsandiza trozatzeko hartarik erosten. Lehen hiriko magasi batetan erosten dizu bi sosen papera eta berriz aitzina phartitzen. Ekhiak erratzen, bidian errhautsa lodi. Ohartürrik Españan pürnasak abundant ziela eta agian ükhenen ziala amatür pürmas ehaiteko erremedioaren, paper gorri hua ejerki karre nabelarekin phikatzen dizü eta espezia plegatzen den gisa bideko errhautsetik paket txipi ahala oro egiten dizü. Lehen herriala heltü onduan oihü arramaz hasten düzü erraiten dialarik: ¿Quién quiere comprar polvo para matar chinches? Hori erran nahi beita: nork nahi du erosi pürnas ehaiteko errhautsik. Phentsa! Familiak osoik. Purnasez korronpitüik fite sürtut emaztiak juaiten tüzü erremedio balius hortarik eroatera zuin lehenka. Fite finitü züzün ene probisionia bena nula beste bi soseki beltzen muien probisione egiteko, holaxe muien horrez egiten dizü nahi ziana oro sos. Ürgüliak hantüik txapel xütarekin jiten düzü Frantziarat aberastürrik, mündia estonaturik holako gizon auher bat nulaz hain fite aberastü zen jelos zütüzün eta estonatürrik Españan hain aisa hain aisa zenez aberastia. Bena gizon horrek nula bil hala igor. Frantzian fite praubetu züzün ziolarik bere beithan orai berriz praubetürrik ere arra berriz badakiat noat juan eta zer egin berriz aberasteko. Azken sosak Frantzian jan abantzatü onduan phartitzen düzü berriz ber lekhialat ustez txoriek ber lekhietan egiten zütien habiak. Ber probisione süertiaz ontsa montatürrik, lehen igan zen hirian hasten düzü arramaz: "¿Quien quiere comprar polvos para matar chinches?". Berriz ere emazte horik laster frantzesaren ondotik erraiten zialaik frantsesari: bena zure errhautsak eztizü potelerik; gü gure pürnasekin gütüzü, kasi lehen beno haboroekin gütüzü eta ezpadüzü erremedio hoberik, batere eztizugu haboro nahi. Frantses horrek: ha hori eztüzü ene ogena, otzanakien erremediaren untsa enplegatzen, nun ahantze betzaitan ordian zier esplikatzeko; orai untsa eni beha ziteie, nula egin pürnasik gabe nahi bazie izan; har ezazie orok

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com